

Engendrokronologia

A

tzean historia luzea duen Andueza base-
rrian Zegamako turis-
mo-bulegoa eta Egu-
rraren interpretazio
zentroa lekutzen dira gaur.
Interpretazio-zentro horren
helburua, Euskal Herriko nahiz
atzerriko zuhaitz eta zuhaixken
egurraren ezaugarri eta erabile-
rak ezagutaraztea da. 173
zuhaitz-espezie ezberdinen
enborrak daude ikusgai. Enbor
hauek guztiak Imanol Artola Zegamako basozai-
nak bildu ditu urtetan zehar. Bisita egin nuenean
zuhaitzaren bizitza markatzen duten enborreko
eraztunak ikusten hartu nuen zirrararik hunkiga-
rriena. Dendrokronologia da zuhaitzaren adina,
bere ingurunea eta historia azaltzen dizkigun
zientzia. Hazkuntza-eraz-
tunak enborrean agertzen
diren zirkuluak dira.
Zuhaitz-enborraren eba-
kiduran agertzen diren
eraztunak kontaktuz,
zuhaitzaren adina eta his-
toria jakin daitezke. Eraz-
tun guztiak ez dira berdi-
nak, batzuk zabalagoak
dira eta beste batzuk
estuagoak, ezberdintasun-
ek urte bakoitzean izan-
dako eguraldia edo zuhai-
tzak jasandako gaitzak
ematen dituzte aditzera.
Zuhaitzak gazteak dire-
nean gehiago hazten dira helduak direnean
baino. Hori dela eta, enborraren barrualdeko
eraztunak lodiagoak izan ohi dira kanpoaldekoak
baino. Eraztun horiek dituzten zuhaitzek beren
bizitza eta historia idatzita daramatela esan daite-
ke eta, urratsez urrats, historiako liburu baten
orrialdeak bezala aztertu eta irakurtzea besterik
ez dago. Gure sailaren ideiarri ere halako itxura
hartzen diot neurri handi batean: eraztunak lagun
egina bizi da. Inguru berean eta sasoi berdin-
tsuan hazi diren enborraren eraztunak dira gure
artikuluak, eta lehen begirada nahikoa da ondo-
rengo idazlanaren ildo nagusiak atera eta beste

DANI BLANCO



Jose Luis Padron



Ixiar Rozas



Ana Urkiza

gauza asko ere azaleratzeko.
Zenbat eta eraztun gehiago
sartu eta denboran atzerago
joan, hainbat hobe eta
zehatzagoa izango da tta-
kun-basea. Bizirik jarraitzen
duten eraztun zaharragoen
ttakunak eta berriki sortuta-
koenak gainjarrita azaltzen
dira gure “borondate bai-
korren” ibilbide kronologi-
koa zehaztu arte. Eta eraztun-harreman
horren gauzarik inportanteena elkarrekin pentsa-
tzeko eta ikasteko, komunikatzeko, elkarrekin
bizitzeko, eta baita norbera izateko sustraiak ere
ditugula ziurtatzea da. Zuengan dut orain intere-
sa, Ana eta Ixiarren, proposatzen ari zaretan
errealitatean, eta zuen sortzeko ahalmenean.
Baina ez dut nire inguruan konfiantzarik. Engen-
drokronologia baten

datu-basea baino besterik
ez baitut ikusten ingu-
ruan, eta horrek mikaztu
egiten du nire diskurtsoa.
Engendrokronologia bai,
hori besterik ez baitute
betiketuko Eusko Jaurla-
ritzak aurkeztu berri duen
Bakearen Aldeko Hez-
kuntza Plana ikastoletan
sartzen badute. Ez al gara
jada gu guztiok gatazka-
ren drama eta ikararen
munstro nahiko itsusiak?
Zergatik haurrak orain
hain modu krudelean

zigortu, zuek politikariek zuen artean konpon-
tzen jakin ez duzuen miseria eta arazoekin? Bikti-
mei nire giza elkartasuna, baina, mesedez, utzi
haurrak bakean! Utzi irakasleek beraiek elkarbizi-
tza, adiskidetzea eta bakea bezalako balioetan
hezi ditzaten, baina, mesedez, ez haurrei errua
bota, ez euskal haurrak Espainiako Barne Arazo-
etako Ministerioak zuzendutako eskolaren giza
engendro bihurtu! Zer ikasiko dute gainera,
Samaranch “Eraztunen Jauna” frankismoaren
diktaduran fusilatuei ezkontza-eraztunak esku-
tati lapurtzen zizkieten pelotoien lagun peto-
petoa kirol olinpiarren mesedetan egin zela? ■



*Biktimei nire giza elkartasuna, baina, mesedez, utzi
haurrak bakean! Utzi irakasleek beraiek elkarbizi-
tza, adiskidetzea eta bakea bezalako balioetan hezi ditzaten,
baina, mesedez, ez haurrei errua bota, ez euskal
haurrak Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak
zuzendutako eskolaren giza engendro bihurtu!*

